

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

Euskara sustatzeko 2021eko diru-laguntza deialdia

2021eko irailaren 21eko 342/21 Alkatearen Dekretuaren bidez onartu da euskara sustatzeko 2021 urteko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak, eranskineko testuaren arabera. Informazio zehatzagoa, udal webgunean jaso daiteke: www.aramaio.eus.

Aramaion, 2021eko irailaren 27an

Alkatea

LIERNI ALTUNA UGARTE

ERANSKINA

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA. Deialdiaren xedea.

Aramaioko Udalak euskara sustatzeko diru-laguntzak emango ditu honako bi kapitulotan banatuta:

– Euskara ikastaroak egiteagatik edota UEUko Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeagatik.

– Kanpoko zein barruko hizkuntza paisaia euskaraz sortzeagatik. Hala nola: herriko edozein establezimenduetan kanpoko errotulua edota barruko hizkuntza paisaia euskaraz soilik jartzeagatik; herriko erakunde edo taldearen webgunea euskaraz bakarrik sortzeagatik; eta abar.

BIGARRENA. Deialdi honen xede diren diru-laguntzetara bideratutako diru kopurua 1.800 eurokoa da eta finantzatuko da 03.335.481.008 aurrekontuko kontu sailaren kontura.

Aipatutako diru kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

HIRUGARRENA. Diru-laguntzen izaera.

Diru-laguntza zuzenean emango da horretarako dagoen araubidearen arabera eta ebaluazio bakoiztuaren sistema bidez.

LAUGARRENA. Diru-laguntzen ordainketa.

Alkateak, euskara teknikariak eginiko proposamena ontzat hartu eta ebatzi eta gero, diru-laguntzaren ehuneko ehuna ordainduko da.

BOSGARRENA. Dokumentazio orokorra.

Diru-laguntza hauek lortzeko interesa duenak honako dokumentazio orokorra aurkeztu beharko du:

- Eskatzailearen NAREN fotokopia.
- Kontu korronte zenbakia eta titularraren izena eta abizenak.

- Zinpeko aitortpena adieraziz ez dela 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorren, IV Tituluan jasotako arau-hauste batengatik zigortua izan.

- Ogasuneko eta Segurantza Sozialeko ziurtagiriak, eskatzaileak zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dutenak.

Azken bi dokumentuak zinpeko aitortpen batek ordezkatu ditzake, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, diru-laguntzetarako lege orokorraren, arabera.

Diru-laguntza hauek jasotzeko eskaera egiteak dakar oinarri hauetan ezarritakoa espresuki zein formalki onartzea.

Ezin izango dituzte diru-laguntza hauek eskuratu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigorra izan dutenek.

Pertsona eskatzaileei ohartaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla, indarrean dagoen datu pertsonalen babesari buruzko araudiarekin bat.

Aurkeztutako eskabideek adierazi diren baldintzak betetzen ez badituzte, interesatuei ohartaraziko zaie hutsuneak hamar egunetako epean zuzendu ditzaten, eta honela egiten ez badute, eskaera artxibatu egingo da, ezetza emandakotzat joko delarik.

SEIGARRENA. Eskaera egiteko modua.

6.1. Eskaerak Aramaioko Udalak aterako duen eredu normalizatuaren arabera aurkeztuko dira, behar bezala beteta, kasu bakoitzean zehazten den dokumentazioarekin batera.

6.2. Eskabideak Aramaioko Udalaren bulegoetan aurkeztuko dira, bulego ordutegian (9:00etatik 14:00etara). Honek ez du eragozten 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena 16.4. artikuluan ezarritakoa bete behar izatea.

6.3. Eskabideak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 30ean amaituko da.

ZAZPIGARRENA. Interpretazio eskumena.

Oinarri hauek nola ulertu behar diren argi ez badago, Aramaioko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak ebatziko du zalantza.

ZORTZIGARRENA. Organo eskudunak.

8.1. Eskaeren balorazioa eta laguntzen proposamena euskara teknikariak landuko du. Alka-teak, egindako laguntzen proposamena ontzat hartu eta gero, diru-laguntzaren diktamena egin eta ehuneko ehuna ordainduko da.

8.2. Deialdi honi eta deialdi honetatik sortutako administrazio-egintza guztiei aurka egingo ahal izango zaie, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritako egoera eta eratan.